# ESKUTIK ESKURA
# EGITEN DUGU HERRIA

errigora

Hizkuntzak egiten gaituen bezala, **kontsumitzeko erak ere egiten gaitu herri.** Gure kontsumo hautuek eredu eraldatzaile bat indartu dezakete, eta hori herria egitea da. Herria hizkuntza da, lurra da baina baita ekoizle eta kontsumitzaileak ere, eta euren arteko harremanen nolakotasuna. **Herritarrek ere badugulako erabakimena eta gure eguneroko hautuek badute zerresana** eraldaketa horretan. Kontsumo-ohiturak aldatzea beharrezkoa da herriaren alde egiteko. Indartzeko edo izaera emateko. Izateko edo ez izateko.

Errigoraren Eskutik Eskura kanpainak beste gisara kontsumitzeko aukera bat eskaintzen digu. Euskal Herri osoa biltzen duen proiektu amankomun baten alde **ekoizleak eta kontsumitzaileak biltzen** ditu. Balioaetan oinarritutako ekoizpen eraldatzeile bat (parte-hartzailea, bertakoa, euskalzalea eta bidezkoa) bultzatzeaz gain, Nafarroa erdi eta hegoaldeko produktuak gure etxeetaraino jatorrizko prezioan ekartzeko bide bat eskaintzen digu. Gure lurrak emandako produktuak kontsumitzeko, eta beraz, **herria egiteko aukera bat** da.

## Eskaintza

❗ Agortu daitezke




Azken urteetako **eskema errepikatuko** dugu aurtengoan ere: urte guztirako eskaerak egitea da planteatzen duguna eta, hortaz, oliba-olio birjina estra bidoi handietan eskainiko dugu eta gainontzeko produktuak 12 unitateko sortetan. Salbuespena dira arroz ekologikoa, ardo-sortak eta arbendolak 6ko lotetan banatuko dena. Ohikoa denez, hainbat **berrikuntza** izango dira aurtengoan:.

» **Ardoa** sortetan (6 botilekoak) banatuko bada ere, ekoizle bakoitzak barietatearen araberako eskaintza landuko du (erdi-ondua Azpeak, ondua Lezaunek eta ondu naturala Aristuk). Horietaz gain, formatu aldetik aurtengo berrikuntza Mendikoren *bag-in-box*a da, 5 litrokoa.

» **Babarrun zuri ekologikoak** eskainiko dugu aurten lehen aldiz. Babarrun gorri ekologiko eskasia dela eta, alternatiba gisa.

» **Pikillo piper zati ekologikoak** ere txertatu ditugu katalogoan. Pikillo piper oso ekologikoen kopuruan eskasia zela eta, eskaintza zabaltzeko alternatiba gisa.

» **Arbendolak** moten arabera banatutako loteetan eskainiko ditugu 200g-ko 6 paketeko loteetan: batetik, txigortuak gatzarekin eta naturalak bestetik. Aldaketa hau plastiko gutxiago erabiltzearren eman da.

» **Pasta** loteak ere izango ditugu, 400 g-ko paketeetan ohiko albahaka fussiliaria eta belar probentzal zaporedun fussiliaei, kotxa txuriak gehituko zaizkie.

# Egutegia

errigora

## OTSAILA

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 23 | 24 | 25 | 26 | 27 | 28 | |

Eskaerak

## MARTXOA

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | 1 |
| 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 |
| 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 |
| 16 | 17 | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 |
| 23 | 24 | 25 | 26 | 27 | 28 | 29 |
| 30 | 31 | | | | | |

Bi zatitan ordaintzeko azken eguna

Datuak sartzeko epea

Korrika

## APIRILA

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 |
| 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 |
| 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 |
| 27 Gipuzkoa | 28 Gipuzkoa | 29 Gipuzkoa | 30 Gipuzkoa | | | |

Deskargak

Online ordaintzeko azken eguna

## MAIATZA

Deskargak

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | 1 | 2 | 3 |
| 4 Gipuzkoa | 5 Gipuzkoa | 6 Gipuzkoa | 7 Gipuzkoa | 8 Gipuzkoa Araba | 9 | 10 |
| 11 Ipar EH | 12 Ipar EH | 13 Araba | 14 Araba | 15 Bizkaia | 16 | 17 |
| 18 Bizkaia | 19 Bizkaia | 20 Bizkaia | 21 Bizkaia | 22 Bizkaia | 23 | 24 |
| 25 Bizkaia | 26 Nafarroa Garaia | 27 Nafarroa Garaia | 28 Nafarroa Garaia | 29 Nafarroa Garaia | 31 | |

€ **Eskudirutan jasotako diru-sarrerak**: ekainaren 12ra arte.